

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Baliabideak beharrezkoak dira enpresa aurrera eramateko garaian. Gure giza baliabide garrantzitsuenak sormena eta altzarigintzarako abilezia dira. Sormena gure altzairuak modu interesgarri eta berritzailean sortzeko eta irudikatzeke eta altzarigintzarako trebezia hauek eraikitzeke.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua fabrikatzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Lan egiteko erabiliko duguna lokal bat izango da (alokatuta) eta material berriak sortzeko eta aztertzeke lantegi txiki bat egongo da gehituta atzeko aldean.

Honez gain, altzairuak sortzeko erabiliko ditugun materialak eta gure proiektua jakitera emateko erabiliko ditugun ordenagailuak baita ere sartuko dira baliabide fisikoetan. Hau dena lokalean egongo da, horrela herriko jendeak produktuak ekarri ditzake.

Beste alde batetik, finantza baliabideak gure enpresa aurrera eramateko ezinbestekoak dira. Hasieran gure aurrezkiez eta mailegu batez baliatuko gara. Altzariekin dirua lortu heinean maileguko dirua bueltatuko dugu, gastu horiek kenduz eta etekinak lortzen joango gara.

Baliabide intelektualei begiratuz gero, denboraren pasa heinean sortzen eta garatzen joango dira. Gure produktuak patentatuko ditugu eta egile-eskubideak edukiko ditu saltzen hasten garenetik, inork gure produktua erabil ez dezan.